

Gracias, Jose M<sup>a</sup> Gonzalez Ruiz!

ni ere

# antiklerikala naiz

PAULO AGIRREBALTZATEGI

**Clericalismo-anticlericalismo: es un debate antiguo y muy actual en el mundo eclesial, social y político. Haciendo eco al testimonio del sacerdote y teólogo González Ruiz, que se afirma como anticlerical, el artículo trata de profundizar en el tema, reafirmando también el autor como anticlerical, siendo igualmente sacerdote y teólogo.**

**Pero no se trata, primariamente, de un clericalismo o anticlericalismo que trata de emparejar o de contraponer los "poderes" eclesial y civil, sino de detectar el anticlericalismo inherente al mismo cristiano y contraponerlo a la permanente tentación y realidad del clericalismo interno de la misma Iglesia que se refleja y se prolonga en el clericalismo civil: cultural social o político.**

**Este se define como alianza del poder eclesiástico con el poder civil, para contraponerse conjuntamente a las clases populares.**

Irakurri berria dut, **El País** egunkarian, J.M. González Ruiz-en erritziko artikulua bat: "Yo soy anticlerical". Eta ni? galdetu diot neure buruari. Ba, ni ere bai. Antiklerikala izan nuke behintzat.

Hasteko, ez da erraza norbere burua antiklerikal aitortzea, apaiza izanik. Izan ere, norbere bizi-ingurune hurbilena apaizena bait da. Antiklerikala izatea erreakzioa dela ematen du, zerbaiten kontra datorrena: norbere munduaren kontrako zerbait, hain zuzen ere. Eta kontra jartzea, anti-izatea, **antipatikoa** izan ohi da gehienetan. Horregatik ez da eroso apaiz batentzat antiklerikala izatea.

Baina nik ez dut uste, antiklerikala izatea beraz erreakzioa denik; kristauaren eta apaizaren jatorrizko jarrera dela uste dut. Eta honetantxe ez nator bat José María González Ruiz-ekin. "Como cristiano, como sacerdote, como teólogo, soy anticlerical; aun más, **debo ser anticlerical**", esaten du Gonzálezek. Nik ere kristautzat daukat neure burua, apaiza naiz, eta teologi titulua ere ba dut. Beraz, arrazoin guztiak nonbait, antiklerikala izateko. Eta, berehala, honela definitzen du Gonzálezek klerikalismoa: "Influencia excesiva del clero en la política"; eta antiklerikala: "El que se opone a la influencia excesiva del clero en la política".

Gehiegikeria baten kontrako **erreakzioa** da beretzat, antiklerikala izatea; kristauaren, apaizaren eta teologoaren jatorrizko jarrera da, nere ustez, antiklerikala izatea. Klerikalismoa da, nere ustez, benetako erreakzioa.

## ANTIKLERICALISMO LIBERALA

Hiru puntutan bana daiteke, laburtuz, antiklerikalismo liberala:

1) Elizatik kanpo sortzen den erreakzioa da; horregatik ez da, hasteko, Elizaren barneko egitura soziala kritikatzeko: hau da, ez dira ikutzen Elizan Hierarkiaren eta kristau herriaren artean ezarritako harremanak. Eliza gorputz oso bezala hartzen da, horren



barneko tentsioak kontutan izan gabe. Horregatik, antiklerikalismo liberala gehienbat Eliza osoaren kontra doa.

2) Hala ere, antiklerikalismo liberalak ez du, berez, Eliza ukatzen. Horrek politikan eta gizarte zibilean dituen eskuhartze eta eragin gehiegizkoak ukatzen ditu. Kristautasuna —eta Eliza— gutxienez gidaritze politiko, sozial eta kulturazkotik kanpora ikusi nahi ditu. Eta aurrerago joanez, antiklerikalismo liberalak "sakristian" baztertu-rik ikusi nahi du Eliza.

3) mJarrera antiklerikal honen oinarrian gizartea eta Eliza aurrez aurre ikustea dago: aldez aurretik bereiziriko bi erakunde bezala. Horregatik elkarrekin nahastea edo elkarrir eragitea arrazoitu beharrekoa da, zurikatu beharreko zerbait. Bereziki apaizek eta hierarkiak, erakunde horren ordezkari direnez, ez dute politikan eta bizitza zibilean eskuhartu behar.

Antiklerikalismo liberala ez dago derri gorrez liberalismoari lorutik; bestelako ideologitan ere sustraiturik egon ohi da. Ba ditu bere arrazoin handiak: historikoak eta sozialak. Baina erreakzioa denez, sarritan mingotza eta mindua ezaten da. Horrelakoa agertzen da, esate baterako, Gonzálezek berak aipatzen duen Fernando Savaterena.

Eta antipatikoa eta mingarria gertatzen da, antiklerikalismoak Eliza sakristi zuloa baztertu nahi duenean, inolako presentzia, eginkizun eta eragin zibilik eta politikorik ukatuz. Hain zuzen ere, presentzia, eginkizun eta eragin horiek nolakoak izan: hortxe dago gakoa.

## ANTIKLERIKALISMO KRISTAUA

Kristautasunak jatorriz eta barruan darama antikerikalismoa: horretxan kontraburukatu zen, hain zuzen ere, gahienbat Jesukristo. Judaismokoa apaizak ezagutu zituen berak. Eta apaizek, juduek nahiz kristauek nahiz paganoek, beren erlijiozko itzalaz baliaturik, erlijio-komunitatean "agintari-klasea" sortzen eta eratzen dutenean, klerikalismoa hortxe dugu. Klerikalismoaren sustraia aginte-nahian dago; aginte-nahi hori klasismo edo sektarismo bihurtzen duenean, hain zuzen ere.

Jesukristok, ordea, serbitzariak, murrinak eta mirabeak nahi zituen bere jarraitzaile guztiak, apostoluengandik hasita. Boterearen edo agintarismoaren kontrako komunitatea eraiki zuen. Horrexegatik, agintari-klasearen kontra burukatu zen. Berak eraiki nahi izan zuen anaiarteko komunitatea: horra hor antikerikalismoaren oinarria eta sustraia. horregatik, Kristoren Alizak bere barnean darama antikerikalismoaren dinamika.

Baina zoritxarrez, juduen eta paganoen artean bezala, kristau Elizan ere klerikalismoak bere indarra ez du galdu: agintaren grina eta agintari-klasearen lilurak iraun diraute kristau Elizan ere. Hasteko, bere barneko gaitza du Elizak klerikalismoa, antikerikalismoa bere barneko eskakizuna duen bezala. Horren ondokoa da klerikalismo soziala edo politikoa.

Klerikalismoa, bere oinarrian, ez da harrigintza eta elizgintza bereiztean alabateratzean, eta bai bata nahiz bestea agintaritzat mailatik eramatean. Apaizek beren

herriarekiko, kulturarekiko eta politikarekiko eragina indartzeko eta finkatzeko, agintea duten klase sozialekin bategiten dutenean, klerikalismoz jokatzeko ari dira. Horrela, apaizek, alde batetik, beren erlijiozko itzala eskaintzen die agintea duten klase sozialei; eta bestetik, klase horietaz baliatzen dira, herrigintzan (kulturan nahiz politikan) beren eragina handitzeko, indartzeko eta finkatzeko.



Klerikalismoak, bada, apaizek klase sozial gainhartzaileekin edo agintedunekin egiten duten aliantzan du bere oinarria; eta orduan Eliz barneko klerikalismoak, klerikalismo sozial, kulturazko eta politikarekin bategiten du. Aginterik gabeko klaseekin —herriarekin— burukatzeko denez horien aldeko burruka gidatzen duen apaiza kleri-

kala (klerikalista) dela esan ote daiteke? Ez dut uste horrek klerikalismoarekin zerikusirik duenik.

Hau idazten ari naizen bitartean, San Salvador-eko Romero artzapezpikua hil dutela jakin dut. Eta berehala pentsatu dut, antikerikala zela Oscar Arnulfo Romero, artzapezpikua izan arren, eta horrexegatik hil dutela, hain zuzen ere; klerikalismoaren izanean eta eraginez hil dute, seguru asko, nahiz eta hiltzaileak ez izan apaizak. Klase zapalduen alde burukatzeko den apaiza ez dut uste klerikala deitu genezakeenik, nahiz eta gizartean, politikan eta kulturazko munduan murgildurik eta gidari bezala ibili.

## KLERIKALISMOAREN ETENGA-BEKO ERAKARMENA

Edozein kristauk eta bereiziki edozein apaizek —apezpikuek eta Aliz hierarkian zeresanik ere ez!— klerikalismora jotzeko arriskua du: hau da, bere erlijiozko ideologiaz eta itzalaz baliatzeko arriskua du, agintea duten klase sozial gainhartzaileekin bategiteko eta herri-klaseen zapaltzaile gertatzeko. Apaizak, nor bere barruan, darama klerikalismoaren tentazioa. Eta horrexegatik antikerikalismoaren espiritu kristaua indartu beharra dauka etangabe.

Baina klerikalismo sozial, kulturazko eta politikoari ihesegiteko, Eliz barneko klerikalismoari ihesegin beharra dago aurrenik: gehienetan klerikalismo eklesiala eta klerikalismo soziala elkarrekin doaz. Eta anaiarteko Elizak ez du apaizan klase gainhartzaile onartzen, kristau herriaren apaiz serbitzariak eta anaiartekoak baizik.

TODAS LAS SEMANAS  
SALIMOS AL ENCUENTRO  
Y AL DIALOGO LIBRE CON EL  
PUEBLO DE EUSKADI

COMPRA  
EN TU KIOSKO HABITUAL

PUNTO  
Y HORA

